

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2020ko urriaren 3tik 9rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2020/10/03

- **GARRAIOEN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA. – Etxebizitza.** - TMA/930/2020 Agindua, irailaren 29koa, apirilaren 9ko TMA/336/2020 Agindua aldatzen duena. Agindu horren bidez, Etxebizitzaren Estatuko Planaren (2018-2021) laguntza-programa bana gehitu, ordeztu eta aldatzen da, COVID-19ari aurre egiteko arlo sozial eta ekonomikoko premiazko neurri osagarriak hartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege-dekretuaren 10., 11. eta 12. artikuluetan xedatutakoa betetzeko. **2020-11694 xedapena - 2 or.**

2020/10/06

- **GAI EKONOMIKOEN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN MINISTERIOA. – Finantza neurriak.** - Ebazpena, 2020ko urriaren 2koa, Altxorren eta Nazioarteko Finantza-zerbitzuen Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez zehazten den autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen zorpetze eragiketei eta eratorritakoei aplikatzekoa zaien finantza zuhertasunaren printzipioa. **2020-11822 xedapena - 3 or.**

2020/10/07

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. – Dirulaguntzak.** - 883/2020 Errege Dekretua, urriaren 6koa, COVID-19ak eragindako osasun krisia dela-eta dirulaguntzak emateko oinarriak ezartzen dituen, lore ebakien eta ornamentazio landareen sektorean. **2020-11882 xedapena - 9 or.**

2020/10/09

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA**
Alarma-egoera. 900/2020 Errege Dekretua, urriaren 9koa, alarma-egoera deklaratzeko duena, SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen kontrolik gabeko transmisioaren ondoriozko arrisku bereziko egoerei aurre egiteko.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2020/10/05

- **SEGURTASUN SAILA.** - EBAZPENA, 2020ko irailaren 25ekoa, Segurtasun Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, zeinaren bidez jakinarazten baita Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean argitaratu dela 2020ko irailaren 25eko Ebazpena, zenbait kide oinarrizko eskalako agente kategoriarekin Ertzaintzako karrerako funtzionario izendatzeari buruzkoa. **4033 xedapena - 1 or.**

2020/10/06

- **OSASUN SAILA.** - EBAZPENA, 2020ko irailaren 25ekoa, Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariarena, gripearen aurkako 2020-2021 denboraldiko txertaketakanpaina noiz hasiko den ezartzen duena. **4078 xedapena - 3 or.**

2020/10/09

- **EUSKO LEGEBILTZARRA.** - ERABAKIA, 2020ko irailaren 24koa, Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurarena, Eusko Legebiltzarraren Erregelamendua aldatzekoa. **4155 xedapena - 3 or.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2020/10/07

- **DIPUTATU NAGUSIAREN FORU DEKRETUAK.** - Diputatu nagusiaren 306/2020 Foru Dekretua, irailaren 30ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2019-2023 legegintzaldirako zehazten duen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Dekretua. **2831 xedapena - 2 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2020/10/06

- **AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO SAILA.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 88/2020 FORU DEKRETUA, irailaren 29koa, zeinaren bidez oinarri arautzaileak eta deialdia onesten baitira 2020. urtean Bizkaiko Lurralde Historikoko biztanlegune sakabanatuetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko dirulaguntzak emateko. **609 xedapena - 36 or.**

2020/10/07

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - 10/2020 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, urriaren 6koa. Honen bidez, COVID-19a dela eta, presazko tributu-neurri osagarriak hartu dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, sozietateen gaineko zergan, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan eta makina edo aparatu automatikoak erabiliz egiten den jokoaren gaineko tributuan. **624 xedapena - 7 or.**

2020/10/08

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Foru Aldundiaren erabakia, Bizkaiko Lurralde Historikoan 2020rako mezenasgoaren ondorioetarako lehentasunezko jardueratzat aitortzen dituen, COVID-19ren aurkako borrokara bideratutako ikerketaren esparruan, «Pertsona seropositiboak COVID-19ren aurrean identifikatzeko test serologiko eskalagarriak garatzea eta baliozkotzea» eta «Biztanleria orokorraren diagnostiko serologikorako tresna analitikoak eta metabolikoak garatzea SARS-COV-2aren aurrean» ikerketa-proiektuak. CIC Biogune Biozientzietako Ikerketa Kooperatiboko Zentroak egingo du, Ogasuneko Foru Diputatuaren uztailaren 29ko 1367/2020 Foru Aginduaren 1. eta 3. artikuluetan aurreikusitako irismenarekin. **622 xedapena - 2 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2020/10/07

- **DIPUTATU NAGUSIA.** - 6/2020 Foru Dekretua, irailaren 29koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak, eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak finkatzeko ekainaren 29ko 3/2019 Foru Dekretua aldatzekoa. **5040 xedapena - 2 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO